

Identitaterako eskubideari buruzko ipuin bat

Nire izena jaio zen

Izenik Gabeko herrian, guzti-guztiak ezagutzen zuten elkar, eta halaxe izendatzen zuten batak bestea: zu, neska, mutila, barazki-saltzailea, harakinaren semea, semaforoaren aurrean bizi den neska, **alanbratzaile-trankaz** ibiltzen dena, sudur okerrekoaren alarguna.

Baina, herria hazten joan zen heinean, nahaste-borrasteak hasi ziren. Hiru semaforo jarri zituztenean, auzokide batek beste bati esan zion:

–Ba al zenekien semaforoaren aurrean bizi den neska...?

–Zer semaforo?

–Harategitik bueltan dagoena.

–Zer harategititik?

–Harategitik bueltan dagoen semaforoaren aurrean bizi den neska ari naiz, ogia saltzen duen mutila maiteminduta dagoenaz! –erantzun zuen auzokideak haserre, ez ziotelako ulertzen.

Ogi-saltzailea maiteminduta zegoelako albistea semaforoaren aurrean bizi ziren neska guztiengana iritsi zen.

–Ba al zenekien ogia saltzen duena zutaz dagoela maiteminduta?

–Ez, zutaz!

–Nitaz?

–Ez, hartaz!

Hainbat neska gazte eder atera ziren hiru okindegietan barrena ibiltzera, eta, egun horretan, ohi baino ogi gehiago saldu zen. Lehenengo hamaiki beste hamaika gehitu zitzaizkien, semaforoaren **erdi edo ukuilu batean** bizi zirenak, "ogi-saltzailea semaforoaren inguruan bizi den neska batekin dago maiteminduta" berria iritsi zitzaielako. Herri osoa dago hiru semaforoetako baten "inguruan"; ondorioz, herriko lasaitasuna zalaparta bihurtu zen neska gazte guztiak maiteminduaren bila atera zirenean.

Ogia saltzen zuten mutilek jarrera ezberdinak hartu zituzten:

Maiteminduta zeudenak kikildu egin ziren, eta ez zuten hitzik esaten. Maiteminduta ez zeudenak, poztu eta puztu egin ziren euren atzetik zebiltzan hainbat neska eder ikusita, eta elkarren kontra hasi ziren lehian hautatua izateko: "neu naiz okindegiko mutil maitemindua"; "ez, neu naiz: semaforoetatik pasatzen ikusi nauten bizilagun guztiak ditut lekuko"; "neu pasatzen naiz egunero semaforotik, eta nahi dut luzaroan egon dadin gorri nire kuttuna irteten ikusteko".

Okinei neska-lagun bila zebiltzan beste mutil gazte batzuk –eta ez hain gazteak– gehitu zitzaizkien, eta ordura arte **ume-festetan behiak edo pailazoak jezten ziharduten arren???** behiak jezten edo ume-festetan pailazo-lanetan ibiliak baziren ere, berehala aldatu zuten ogibidea, eta okindegietan lan egiteko eskaintzen zuten beren burua, kasu batzuetan ezer kobratu gabe ere, maitasuna aurkitzeak ez du preziorik eta!

Gero eta handiagoa zen nahasmendua. Epaileari deitu behar izan zioten: zorionez, leku lasai hartara bere lanbidean auzi handirik ez izateko etorritakoa zen. Epaileak, ehunka azalpen eta testigantza entzun ondoren, ondorio bat atera zuen:

–Maiteminduen bikotea aurkitzeko aukera berrogeita hamar bat mutil gazteren eta beste hainbeste neska gazteren artean dago. Konpondu ezineko auzia da! Gaurtik aurrera, beste nahaste batzuk saihesteko, xedatu dut bakoitzari bere izenez deituko zaiola.

Epailea oso praktikoa zen, eta guztiak jarri zituen ilaran, eta izendatu egin zituen:

- Txirikorda Semaforo
- Kopeta-ile Semaforo
- Belarrihandi Semaforo
- ...

Eta halaxe jarraitu zuen zerrendak, neska bakoitza bere izenarekin eta Semaforoa abizenarekin.

Mutilak honelaxe bataiatu zituen:

- Hankaoker Okin
- Ilehorri Okin
- Sudurluze Okin
- ...

Eta halaxe jarraitu zuen zerrendak, mutil bakoitza bere izenarekin eta Okin abizenarekin.

Eta argitu egin zen konatua. Okin asko eta Semaforo asko zeuden, baina "Oreztatxodun Semaforoa" bakarra eta "Sonanbulu Okina" bakarra.

Epaileak bere aginduekin jarraitu zuen:

–Hemendik aurrera, norbaitek, besteren bat aipatzen duen bakoitzean, beraren izen-abizenekin identifikatu behar du. Horrela, gaizki ulertuak prebenituko ditugu.

Eta tak, tok, tok, tok, tak... zigiluak jarri zituen han eta hemen, eta horrek asko ordaindu beharra ekarri zien Semafoerei eta Okinei! Baina asko zirenez, guztien artean ordaindu zuten, eta epaileari auzi berriak sortuko ziren esperantza piztu zitzaion.

Denborarekin, epaileak jarri zituenak baino gero eta izen gehiago eta ederragoak sortu ziren, Izenik Gabeko Herrian honela kontatzen diren une magikoetan jaio zirelako:

Goizalde batean, begi handiko neska beltzaran eder bat jaio zen. Amak leihotik ikusten zituen loreak, hezetasunak bustita. Amaren begiak ere busti ziren; orduan, zuhaitzek eta paisaia osoak amaren maitasun horren tantatxoak jaso zituen. Ama, tantak bere begi handietatik lurrera eta lurretik zerura nola zebiltzan ikusita, hitz bihurtu zen emozio bat sentitu zuen, eta bere haurtxoari xuxurlatu zion belarrira:

–Gaurtik aurrera, guztiek ezagutuko zaituzte zure izenez: Zeru Ihintza.

Horrela hasi ziren beltzaran polita eta beste haur batzuk historia duten izenak izaten, zuri gertatzen zaizun eta niri gertatzen zaidan bezala. Eta historia horrek izendatzen zaituzteten bakoitzean irten nahi du: Pello, Amaia, Alexander, Itziar... Konta dezakezun historia bat.